

## BESTELAKO XEDAPENAK

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

1720

*EBAZPENA, 2015eko martxoaren 26koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria-rena, euskal autonomiarekin zerikusia izanik edo horren azterketarako eta sakontzerako balioa izanik, hainbat aztertze eta ikerkuntza ikuspuntutatik egindako monografia izaera duten ikerlanetarako «Jesús María Leizaola» 2015 sarirako deia egiten duena.*

1983ko uztailaren 27ko Lege arautzaileak eginkizun ugari aitortzen dizkio Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeari. Besteak beste, azpimarratzekoa da gure autonomi sistemak lege eta ekonomiaren arloetan dituen berezitasunei buruzko azterlanak sustatu eta zabaltzeko eginkizuna.

Helburu hori lortu nahian, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak «Jesús María Leizaola» ikerketa-saria sortu zuen 1990ean, inolako zalantzarik gabe, gure herriaren eredu eta ordezkari izan genuen gizon ospetsu horren omenez. Baina izan genuen beste asmorik ere saria eratzera-koan: hamar urte betetzen ziren Euskal Autonomia Erkidegoak autonomia lortu zuela eta gertaera hori behar bezala ospatu nahi genuen.

Autonomia-estatutua indarrean jarri zeneko hiru hamarkada baino gehiago iragan ondoren, egin beharreko hausnarketa ezin da aurreko historialdien tratamendura bakarrik mugatu. Gaur egun, dagoeneko, bada zertaz hausnarketa egin, eta baita egin beharra ere; esate baterako, sortu diren erakunde berrien hasierak eta abian jartzeak, eta geroztik harremanen finkatzeak suposatu dutenari buruz, eta, baita etorkizuna eraikitzen lagunduko duten eredu, parametro eta proposamenen ekarpen eta aurrerapenari buruz ere.

Hori guztia kontuan hartuta, honako hau

### EBATZI DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal autonomiarekin zerikusia izanik edo horren azterketarako eta sakontzerako balioa izanik, hainbat aztertze eta ikerkuntza ikuspuntutatik egindako monografia izaera duten ikerlanetarako «Jesús María Leizaola» 2015 sarirako deia egitea, eranskinean aipatzen diren oinarrien arabera.

### AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Administrazio-bideari amaiera ematen ez dion Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsua jar daiteke, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. artikulua eta hurrengoaren arabera. Horretarako, hilabete bat izango da ebazpen honen argitalpena egin eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Errekurtsu hori ebazpena hartu zuen organoari aurkez dakiok edota, bestela, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuari. Gora jotzeko errekurtsua jarri zenetik hiru hilabete igarota erantzuna ematen ez bazaio, errekurtsua ez dela onartu ulertu beharko da, eta administrazioarekiko auzietako bidera joateko aukera irekita egongo da.

Bigarrena.– Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamu- nean izango du eragina.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko martxoaren 26a.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria,  
MARÍA TERESA IRURETAGOYENA IBARGUREN.

## ERANSKINA

EUSKAL AUTONOMIAREKIN ZERIKUSIA EDO HORREN AZTERKETARAKO ETA SAKONTZERAKO BALIOA IZANIK, HAINBAT AZTERTZE ETA IKERKUNTZA IKUSPUNTUTATIK EGINDAKO MONOGRAFIA IZAERA DUTEN IKERLANETARAKO «JESÚS MARÍA LEIZAOLA» 2015ERAKO DEIALDIA EGITEN DUEN EBAZPENARENA

## OINARRIAK

Lehenengoa.– Sarira aurkez daitezke, euskal autonomiarekin zerikusia izanik edo horren azterketarako eta sakontzerako balioa izanik, hainbat aztertze eta ikerkuntza ikuspuntutatik egindako eta argitaratu gabeko monografia izaera duten ikerlanak, euskaraz zein gaztelaniaz idatzitakoak.

Hau da, sarirako aurkez daitezkeen monografia izaera duten argitaratu gabeko ikerlanek esparru horiek jorra ditzakete: autonomien estatuaren konfigurazioa eta Euskal Autonomia Erkidegoa; Euskal Autonomia Erkidegoko eraketa, errealitatea eta etorkizuna; beraren gobernu-erakundeak, maila politiko-administratibo guztietan; historia, kultura, bibliografia, zuzenbidea, ekonomia, finantza, aurrekontua, fiskalitatea, gizartea, estatistika eta bestelako arloen inguruko berariazko berezitasunak; eta euskal administrazioen diseinua, antolaketa, funtzionamendua eta etorkizuna.

Argitaratu gabeko lanak dira jabetza intelektualari buruzko legerian ezarritako eran hedatu edo argitaratu ez direnak. Horren ondorioz, ez dira argitaragabetzat joko bitarteko telematikoen bidez, hau da, Interneten zein beste sare batzuen bitartez argitaratutako, hedatutako edo publikoaren eskura jarritako lanak.

Bigarrena.– Norbanakoak zein horretarako eratutako lantaldeak aurkez daitezke sarira. Lantaldea aurkezten bada, argi eta garbi adieraziko da nor izango den ikertalde horren arduraduna.

Ezin izango dute deialdi honetan parte hartu:

a) Diru-laguntzak edo laguntza publikoak eskuratzea galarazten duen debekuren bat duten edo administrazio-zehapen penalpean dauden pertsona fisikoek, emakume eta gizonen arteko berdintasunari buruzko 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legean sartutako debekuak eta zehapenak ere barruan direla.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta bere erakunde autonomiadunek ematen dituzten izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen eremuan izapidetzen ari den itzultze edo zigortze-jardunbidean sartuta dauden pertsona fisikoek, prozedura amaitzen den arte.

Hori horrela da Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren 50.4 artikuluan xedatutakoaren arabera: «Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrak edo erakunde autonomiadunek ezaugarri bereko beste laguntza edo diru-laguntzaren batzuk eman izana dela-eta horiek itzultzeko edo zigortzeko prozesuren bat oraindik ere izapidetzen ari bada, prozesu hori amaitu egin beharko da onuradunei diru-laguntzak edo laguntzak eman eta ordaindu ahal izateko.»

c) Aurreko hiru deialdietakoren batean Leizaola saria lortu dutenek.

d) Funtsean aurreko urteetan aurkeztutako beste ikerlan batzuekin identitate handia duten ikerlanek.

Hirugarrena.– Sariaren zenbatekoa hamalau mila (14.000) eurokoa izango da eta zientzia-ikerlanik hoberenari emango zaio.

Lantalde batek aurkeztutako ikerlan bati ematen bazaio saria, taldekide guztiak izango dira onuradun.

Laugarrena.– Eskabideak, eta horiekin datozen ikerlanak, izapidetze elektronikoko bidez aurkeztu beharko dira, hurrengo arauekin bat etorritik: Administrazio Elektronikoko buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretua; eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren eta bere erakunde autonomiadunen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzko apirilaren 29ko 72/2008 Dekretua.

Norberaren burua identifikatzeko ezinbestekoa da NAN elektronikoa, Izenpe-ren Herritarraren ziurtagiria, Izenpe-ren Langile publikoaren ziurtagiria, Izenpe-ren Itsasontzi-jokoaren sinadura elektronikoko tresna, «Diruaren eta Zerga-zigiluaren Fabrika Nazionala»ren pertsona fisikoaren nortasun ziurtagiri elektronikoa (Ceres), Camerfirma-ren pertsona fisikoaren ziurtagiria, edo Firma Profesional-en Pertsona fisikoaren ziurtagiria erabiltzea.

Aipatutakoez gain, eskabideak aurkezteko epearen bukaera datan erabilgarri dauden ziurtagiri elektronikok onartuko dira. Ziurtagiriok Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikoa (<https://euskadi.eus>) kontsultatu ahaliko dira, hurrengo atalean: Izapideak/Identifikazio elektronikorako onartutako bitartekoak.

Aurkezteko epea Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean zenbatzen hasiko da, eta 2015eko maiatzaren 29an bukatuko da, azken egun hau epe barruan egongo delarik.

Bai eskabidea baita ikerlana ere hurrengo helbide elektronikoa aurkeztu beharko dira: [www.ivap.euskadi.eus/leizaola\\_saria\\_2015/r61-vedplus/eu](http://www.ivap.euskadi.eus/leizaola_saria_2015/r61-vedplus/eu)

Norberaren espedientean sartzeko eta haren jarraipena eta izapideak egiteko [www.ivap.euskadi.eus](http://www.ivap.euskadi.eus) egoitza elektronikoko «Nire Kudeaketak» atal berezira jo behar da. «Nire Kudeaketak» atalera egoitza elektronikotik zuzenean ere sar daiteke <https://euskadi.eus/y22-home/eu>

Ikerlanen gutxieneko luzera ehun orrialdekoa izango da, orrialdeak idazmakinez eta bi hutsarte utzita idatziak izanik.

Sarira aurkezten direnen nortasuna isilpean gordeko da, eta bakar bakarrik argitaratuko dira sariaren irabazleen izenak.

Bosgarrena.– Honako deialdi honen kudeaketa Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Azterlan eta Argitalpen Zerbitzuari dagokio.

Seigarrena.– Hona hemen saria emango zaion hautagaia erabakiko duen Epaimahaiaren kideak:

Epaimahaiburua:

– Herri Administrazio eta Justiziako sailburua edo berak izendatutako ordezkoa.

Kideak:

– Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria edo berak izendatutako ordezkoa.

– Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko idazkari nagusia edo berak izendatutako ordezkoa.

– Estatutuaren Garapenerako zuzendaria edo berak izendatutako ordezkoa.

– Sarirako aurkeztutako ikerlanen gaien inguruan entzute handiko aditu bi. Horiek, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuak Agindu bidez izendatutakoak, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren proposamenez.

Idazkaria:

– Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Azterlan eta Argitalpen zerbitziburua edo berak izendatutako ordezkoa, IVAPi atxikitakoa izan behar duela. Hizpidea eta botoa emateko eskubidea izango ditu.

Epaimahaia osatzerakoan, ahaleginak egingo dira trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua egon dadila bermatzeko. Ondorio horretarako, ordezkariak orekatua izango da sexu bakoitzak gutxienez %40ko ordezkariak baldin badu.

Sexuetako edozeini dagokionez, aurrean adierazitako ehunekoa betetzea ezinezkoa edo oso zaila gertatzen bada, ezintasun edo zailtasun hori zurituko da Epaimahaia osatzen duten aditu biak izendatzen dituen Aginduan.

Saria emateko, Epaimahaia bildu eta daudenen gehiengoaren aldeko botoa beharko da. Berdinketarik gertatuz gero, epaimahaiburuak izango du ebazteko botoa.

Zazpigarrena.– Deialdiak eragina izango duen egunetik sei hilabete igaro baino lehenago hartuko du erabakia Epaimahaiak. Saria nori eman proposatzeko ondorengo alderdi hauek begiratuko ditu Epaimahaiak: monografia izaera duten aurkeztutako ikerlanen kalitatea eta zuzentasuna, teknika-ren eta zientziaren aldetik; adierazitakoaren originaltasuna; eta arlo bakoitzeko ikerketa-eremuari ekarritako berrikuntza. Epaimahaiaren iritziz lan batek ere ez dituenean eskatutako baldintzak betetzen, hark saria hutsik uztea proposatu dezake.

Zortzigarrena.– Sariaren esleipena, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen zuzendariaren ebazpenaren bidez, Epaimahaiaren proposamenari jarraituz, egingo da, eta gero Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara emango da.

Deialdia indarrean jartzen den egunetik sei hilabete igarota, sariaren esleipen ebazpena interesdunei jakinarazi ez bazaie, interesdunek ezetsizat hartu beharko dute beren eskaera. Hori guztia Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44.1 artikulua arabera.

Bederatzigarrena.– Sariaren onarpena edo uko egitea, esleipendun denaren aldetik, [www.ivap.euskadi.eus](http://www.ivap.euskadi.eus) egoitza elektronikoko «Nire Kudeaketak» atalean telematikoki aurkeztutako idatzi bidez jakinarazi beharko da, hamar laneguneko epean. Epe hori esleipen ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta deialdiaren interneteko helbide elektronikoa argitaratu eta hurrengo egunetik hasiko da. Argitalpena egun berean egingo da.

Hamargarrena.– Sariaren ordainketa, aldi bakar batez egingo da, esleipena egin eta gero. Zergei buruzko arauekin bat etorritik, hirugarren oinarrian aipatzen den diru kopurutik aplikatu dakizkiokeen atxikipenak egingo dira.

Halaber, sariaren ordainketa saria lortzen duen ikerlanak beste edozein erakunde publikotik edo pribatutik jasotako edozein motatako diru-laguntzarekin bateragarria izango da.

Hamaikagarrena.– Saria onartzeak berekin dakar Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeari egile-eskubideak dohainik lagatzea. Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak urtebeteko epean ikerlanaren argitalpena aurrera eramateko konpromisoa hartzen du; epe hori zenbatzeko, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak edo erakunde horren argitalpen zerbitzuen esleipendunak diren enpresek bete behar dituzten tramiteak eta betebeharrak burutzeko denborak besterik ez dira kontuan hartuko.

Saritutako ikerlanak beste lan zabalago batzuen atal badira, Epaimahaiak osorik argitaratzea erabaki dezake; hala eginez gero, egileak obra osoaren ustiapen-eskubideak lagako dizkio administrazioari. Edozein modutan, saria irabazi duela adierazteko, izenburu honekin azaldu beharko da: «Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen «Jesús María Leizaola» 2015 saria».

Hamabigarrena.— Prozesu honetan jasotako datu pertsonalak «Ikerketen sustapena» fitxategi automatizatuan bilduko dira. Fitxategi horren helburua prozesu hau kudeatzea baino ez da izango. Fitxategi horren erabilera eta jarduera antolatzeko datu pertsonalak eta datu pertsonalak dituzten jabetza publikoko fitxategiak babesteko legeriak zehaztutakoari jarraituko zaio (Datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legea, eta garapenerako bestelako arauak). Herri Arduralaritzaren Euskal Erakunde zuzendaria da fitxategiaren arduraduna. Hortaz, datuak eskuratzeko, zuzentzeko ezerezteko edo haien aurka egiteko, organo horretara jo beharko da.

Hamahirugarrena.— Ikerlanen bat aurkezteak deialdiaren oinarrietan zehaztutako baldintzak onartu beharra dakarkio interesdunari.